



Emilio Olabarria eta Iñaki Anasagasti, joan den ostiralean, Bilbon, EAJren egoitza nagusi Sabin Etxean. LUIS JAUREGALTZO / ARGAZKI PRESS

## «Madrilen ahuluneak baliatu behar dira gauzak lortzeko»

**Iñaki Anasagasti eta Emilio Olabarria** • EAJko senatari eta diputatu ohiak

Anasagasti eta Olabarriaren artean 50 urte egin dituzte Espainiakò Kongresuan eta Senatuan: aurrenak, 29 urte (diputatu eta senatari), eta bigarrenak, 21 (diputatu). Abenduko bozetan ez dira hautagai izango.

### Enekoitz Esmatza Bilbo

Iñaki Anasagastik (Venezuela, 1947) EAJren egoitza nagusi Sabin Etxean duen bulegoan da Emilio Olabarriaren (Bilbo, 1955) eta bien arteko juntadizoa BERRIARAKO. *Good bye, Spain* (Adio, Espainia) itsasgari bat dago, eta presatu dira argazki bat ateratzera.

**1986an joan zineten Madriler, Kongresura. Zer oroitzapen?**

**EMILIO OLABARRIA:** Gu orduan alderdian egoera traumatiko bat pasatzen ari ginen, EAJ zatitzeaz zegoelako. Jaurilaritzako sailburuak eta Garaikoetxearen alde egiten ari ziren, eta bazirudien apustua galdu egingo genuela.

**IÑAKI ANASAGASTI:** Kongresuan ginenok bakardade sentsazio bat genuen, berrietasuna EA zelako eta alderdi zaharra, EAJ: Baina buelta eman genion egoerari.

**OLABARRIA:** Batza sendotasunez eman ere.

**ANASAGASTI:** 1986an PSOE in-dartsu zegoen, Felipe Gonzalezek gehiengo osoa baitzuen. 1989an hasi zen hori hausten, gehiengo osoa galdu zuenean. Baina 1993an hasi ginen gu Madrilen joko handiagoa izaten.

**OLABARRIA:** PSOEk atzi handiak izan zituen: alderdiaren finantzaketa, Roldan, GAL, Banestoren nazionalizazioa... Hura bai ustelkeria sistemikoa.

**ANASAGASTI:** Niretzat, izugarriena eta esanguratsua Jordi Pujolen kasua izan da. Guretzat ikono bat baita Pujol. Baina bitxia da ustelkeria kasu hori orain azaltzea, Espainiako inteligentzia zerbitzuak lehendik bazekitelako.

**OLABARRIA:** Justiziaren erabilpen bat egin dute, prozesu politiko jakin baten aurka egiteko.

**1986an, GAL artean ekinean zen. Nola bizi zenuten Madrilen?**

**ANASAGASTI:** Ekinean zela krimen haien auzia ez genuen bizi

edo ikusten Madrilen. Gero izugarriko borroka izan genituen Barri-nuevo Barne ministroarekin, sarri galdetzen geniolako GALi buruz. Gaur egun Barri-nuevok aurrez aurre ikusten bagaitu, errepidearen bestaldera joaten da.

**OLABARRIA:** Baina duela gutxi Madrilen topo egin genuen, eta nigana gerturatzen saiatu zen. Ez nion bostekorik eman. Hiltzailen bat mespretxatzen den moduan mespretxatu nuen. Ikerketa batzordeak sortu zirenean, esaten zигuten ikertzen ari zirela eta abar. Guk bagenekien tramak non zeukan iturburu. X jauna zein zen jakin gabe geratuko gara, ordea.

**ANASAGASTI:** Galindo bera ere izan zen batzordean deklaratzeko.

**OLABARRIA:** Barne ministro izandakoen artean sintonia bat dago, nahiz eta alderdi desberdinetakoa izan. Ministerio horrek hain loslai traumatikoa du, arduradunek elkar ulertzen dutela.

**ANASAGASTI:** Antonio Asuncion [PSOE] izan zen salbuespena; dimisioa eman zuen [1994an]. Guk harremana genuen harekin.

**OLABARRIA:** Asuncionek botere politikoa izan balu, sakabanaketa bukatuko zukeen.

**EAJk babestu egin zuen sakabanaketa politika. Hemerrotekan dira adierazpenak, bionak eta.**

**ANASAGASTI:** Sakabanaketa, berez, ez zen txarra, helburua presoen erdiak kartzelatik ateratzea baitzen. ETA oso autoritarioa zen espetxean ere, eta baziren preso batzuk handik askatu nahi zutenak, onurak eta eskatzeko. Sakabanaketaren gakoak zen preso haiek ez zezatela preso hura izan. Baina gero Mayor Oreja heldu zen, eta norabidea aldatu zuen.

**Mayor Oreja Barne Ministeriora heltzerako (1996) zazpi urte zera-matzen sakabanaketak.**

**ANASAGASTI:** Bai, baina politika hura funtzionatzen hasia zen.

**OLABARRIA:** Mayor Orejak distortsionatu egin zuen sakabanaketa politika. Presoak Euskaditik urrutien dauden kartzeletara bidaltzea ez zuen sekula babestu EAJk.

**ANASAGASTI:** Preso batzuen senideen eta gobernuaren arteko bertartekari lanak egin genituen.

**Sakabanaketa hasi zuten urte berean hil zuten, Madrilen, Josu Muguruza HBko diputatua.**

**ANASAGASTI:** HB 1989an Kongresura joan zenean, orduan esaten zen ona zela hori, HBk pasilloetan bada ere hitz egin zezan gobernuarekin. Baina joan ziren kargua hartzera HBkoak, eta hil egin zuten Muguruza diputatua.

**HBko ordezkartzako batzuek esan izan dute atentatuaren gau hartan EAJkoak ez zinetela joan erietxera, haiengana.**

**OLABARRIA:** Joan ginen. Neu izan nintzen ospitalean.

**ANASAGASTI:** Segurtasun indarrek hotelean geratzeko eskatu zi-

guten, eta gela aldatzeko ere bai, badaezpada. ETArentzatentatu bat izaten zenean konplikatu zen guretzat Madrilan kalean ibiltzea, baina ez zitzaigun ezer gertatu. Keinu txarrak -eta bai; orain pare bat hilabete kalean txistua bota zidaten.

**OLABARRIA:** Behin PPko diputatu batzuek eraso egiteko mehatxatu ninduten, eta Kongresua hustu arte egon behar izan nuen irteteko. M-11ko ikerketa batzordearen garaian, berriz, Del Burgok «ETAREN defentsore» deitu ninduen.

**Estatuak zergatik ez du bete Gernikako Estaturua?**

**ANASAGASTI:** EAJn beti egon da eztabaida Madrilera joan ala ez, eta beti nagusitu den hautua joatea izan da. Egan da zerbait dagoen tokiari han egon behar duzula. Gernikako Estaturua bezalako lege organikoa bete beharrekoa da, baina eskumen batzuk arrastaka bezala lortu ditugu, unean uneko babesengatik. Adibidez, oso gogoan daukat nola lortu genuen uraren eskumena. PSOEk Mariano Rubio Espainiako bankuko gobernadorearen auziko ikerketa batzordeko presidentetza hartzeko eskaini zigen, baina nik erantzun nion nolatan guri; ez genuela ikusten. Ordu erdi batera deitu zidan Rubalcabak, eta, ganadu feria batean bageunde bezala, bota zidan: «Prezioa!». Nire emaztea orduan Bizkaiko Aldundian Ingurumen diputatua zen; uraren eskumena maiz aipatzen zidan, eta, halaxe, Rubalcabari esan nion: «Uraren eskumena». Ordu eta erdira deitu zidan: «Egina». Dena kalkulu politiko baten arabera egin dute.

**OLABARRIA:** Aznar presidente jarritako lehen aldia [1996] lortu ziren eskumen garrantzitsu batzuk. Ez zeukan gehiengo osorik, eta guk babesa eman genion inbestiduran. Kontzertu ekonomiko egonkortzea lortu zen.

**ANASAGASTI:** Euskaltel sortzea ere bai.

**OLABARRIA:** Hori egin behar da Madril: gobernuaren ahulnepak baliatu gauzak lortzeko.

**ANASAGASTI:** Foru eta kontzertuaren kontuetan PSOErekin baino hobeto funtzionatu genuen PPrekin. PSOE oso jakobinoa da.

**OLABARRIA:** Batik bat, Borrell. Hark ez zuen guk kontzertu ekonomikoa izaterik nahi.

**ANASAGASTI:** Eta orain konstituzio erreforma egiten bada, kalterako izango dela uste dut. Hobe gaur bezala jarraitzea.

**Estatua horrela egonda, zer egin daiteke harekin?**

**ANASAGASTI:** Txikiak azkarra izan behar du, lortutakoa egonkortuz joanez. Orain, behintzat,



LIJES UNJUREGALTZO / ARGAZKI PRESS

gauza batzuk ez dituzte ezbaian jartzen. Garai batean dena zegoen ezbaian; Ertzaintzaren pistolak, adibidez; akordatzen, Emilio?

**Ibarretxe 2005ean estatutuarekin joan zen Kongresura. Gogoratzeko moduko eguna.**

**ANASAGASTI:** Josep Plak dio: «Espainiar eskuindar baten gauzarik antzekoena ezkerreko espainiar bat da». Nik mirespenez bizi izan nuen Ibarretxerena; ausardia handia eduki zuen, eta oso ondo azaldu zituen gauzak.

**OLABARRIA:** Estatuan defizit demokratikoa dagoen adibide bat izan zen. PSOErekin eta PPrekin oso zaila dago, lurraldetasun kontuan antza baitute. Baina gehiengo desberdinak sortu ahal dira. Bestela, beste bide batzuk topatu behar dira; Europako eraikuntzan... Eta, batez ere, Euskadin indartu behar dugu, gure osagai bereizgarriekin, eta gehiengo izanik, ez EAJk, baizik eta abertzaleen argi ikusten.



**Arzalluzekiko lilura intelektual bat zeukan Aznarrek. Presoen 1999ko manifestazioa heitzean hautsi zen harremana»**

**Liaki Anasagasti**  
EAJren diputatua (1986-2004) eta senataria (2004-2015)

**«Barne ministro izandakoen artean sintonia bat dago, nahiz eta alderdi desberdinetakoak izan; elkar ulertzen dute»**

**Emilio Olabarria**  
EAJren diputatua (1986-1996 eta 2004-2015)

leok, orokorrean. Nazioa asko lantzen bada, topatuko du tokia. Katalunian, agian, kalkulu akatsa egin dute, gizartea igual ez dagoelako hain heldua.

**Gaur gauzak ez dituzte ondo ikusten, baina 1993an Espainiako Gobernuan sartzeko aukera izan zenuten.**

**ANASAGASTI:** Bai, baina zein azaldu zen aurka? CiU. EAJk badu ministerioko arduraren esperientzia bat, Manuel Irujoena, II. Errepu-

blika garaian ministro izan baitzen, karterarik gabé izan bazen ere. Felipe Gonzalezen azken legegaldian suertatu zitzaigun berriro gobernuan sartzeko aukera. Moncloan aitari batera deitu zuten Arzalluz. Han ziren Gonzalez eta Soltxaga Ekonomia eta Ogasun ministroa, eta galdetu zien ea zer eskaintzen zuten. Industria Ministerioaren aukera atera zuten, euskal herritarrok industria esperientzia handia dugulako. Industria arloa orduan krisian zegoen, Euskadin langabezia %25ekoa zen... «Baina zer aurrekonturekin?», galdetu zién Arzalluzek. «Soltxagak emandakoarekin», Gonzalezek. Soltxagak zioen aurrekontua doitu behar zutela eta abar, eta Arzalluzek ikusi zuen hura ez zebilela oso serio. Gero jakin genuen oztapatu zuena CiU izan zela. Pujolek ez zuen nahi EAJren ministro bat egoterik, katalanei izala egin ziezaikeelako. Geuk ere ez genuen argi ikusten.

**Zer tratu zeukan Felipe Gonzalezek zuekin?**

**ANASAGASTI:** Trantsizio garaian Felipek Arzalluzi esaten zion autonomia behar zuten bakarrak euskal herritarrek eta katalanak zirela, eta Andaluziak -eta behar zuten bakarra diputazioen mankomunitatea zela. Baina UCD ahultzen hasi zen, PSOE hasi zen aldarrikatzen Andaluzia komunitate historiko bat zela, 1981ean Andaluziako Autonomia Estaturua

egin zuten, eta 1982ko ekainean, LOAPA onartu.

**OLABARRIA:** Politikoki oso jakobinoa da Felipe. Abila zen, eta da, baina tranposoa izan da beti. Pedro Sanchez alderdian disguturik handienak hark ematen dizkio. Baita Rajoyri Aznarrek ere.

**1996an ere izan zenuten gobernuan sartzeko aukera. Ratok aipatu zizuen ministro ona izan zitekeela Ibarretxe.**

**ANASAGASTI:** PPkoak oso berde

zeuden 1996an [Espainiako hauteskundeak irabazi zituztenean], ez zuten esperientziarik, boterea ukitu gabe zeuden. Ibarretxe lehendakariorde zen [Aurlaritzan]. Oso ordenatua zen, eta bazekién zertaz hitz egiten zuen; PPkoak aho zabalik lagatzen zituen, eta Ratok esan zidan: «Aizu, gazte horrek asko balio du, eta gure taldeko [gobernuko] kide izan al daiteke?». Ibarretxe edozer gaitan izango zen ministro. Hori bai, gaur egun ez zituen diru kontuak Kaiman irletan -eta izango...

**OLABARRIA:** PPren solaskideak ziren Rato bera, Rajoy, Mayor Oreja, Montoro... Gure aldetik, Ibarretxe, Ollora, Egibar, Iñaki eta biok, eta beste bakarren bat. Ibarretxe riagutsu egiten zitzaieen eduki autonomikoaz hitz egitean, eta gusatu zitzaieen haren distira hori.

**Moncloan bazkari batzuk egin dakoa zara, Iñaki.**

**ANASAGASTI:** Aznarrek bere lehen agintaldian deitu zidan behin telefonoz, esanez elkar gehiago ezagutu behar genuela eta ea emaztearekin Moncloara joango nintzen bazkaltzera. Gutxi hitz egiten du Aznarrek, eta andreari esan nion hitz egiteko ingurumenaz asko -bere gaia da-. Moncloako atzealdean bazkaldu genuen Aznarrek, haren emazte Botellak, nireak eta laurok. Eta bai, nire emaztea ingurumenaz jardun eta jardun, gehiegi eta dena. Handik pixka batera Madrilan ekitaldi batean geunden andrea eta biok, Aznarrek ikusi zuen hura eta esan zion Ingurumeneko Estatu idazkari izendatzea nahi zuela. Ez zuen onartu, eta Aznar hitzik gabe geratu zen. Gure ondoan zen PPko eldun bat harrituta geratu zen nire emaztearen erantzunarekin, «izendapena baztertu duelako!».

**OLABARRIA:** Behin Arzalluz etxera gonbidatu zuen Aznarrek bazkaltzera. Garai haiek...

**ANASAGASTI:** Batik bat, Arzalluzekiko lilura intelektual bat zeukan Aznarrek. Arzalluzek txunditu egiten zuen, eta besteak ardoa eta oparitzen zizkion. Urte haie-tan, distantzia motzean eta nahi zuenean gizon zoragarria zen Arzalluz. Presoen eskubideen aldeko 1999ko urtarilaren 9ko manifestazioa iritsi zenean hautsi zen harremana. Arzalluzen bulegoan nengoan, [Sabin Etxeko] bosgarren solairuan, eta Aznarrek deitu zuen. Arzalluzek ahotsa denok aditzeko jarri zuen. «Ajzu, Javier, jakin dut presoen manifestaziora joango zaretela igual». «Bai, bai», Arzalluzek. «Oso gaizki iruditzen zait, legitimatzen ari zaretelako, jende hau hauspotzen ari zaretelako, ez da posible, ETA oraindik ere

hor da...». «Badakit, baina zerbait egin behar da. Zu ez zarenez mugitzen, gumugituko gara». Eta Aznarrek: «Gabon bezperan gaude, bestela oraintxe bertan eskegiko nuke telefonoa. Gabon zoriotsuak eta urte berri on». Hura izan zela azken elkartziketa. Urta-riaren 9an manifestazioa, eta orduan hasi zen mundu gerra. Egu-rra ematen hasi ziren; denei, gainera.

**OLABARRIA:** Guri, batik bat.

**ANASAGASTI:** Aznarrek orduan ekitaldi ofizial batean txoko batera deitu ninduen, eta esan zidan «ordaindu» egingo genuela. Bost bat aldi bota zidan hori, oso bere estiloan; mafia hitza. Harekin ordutik atzo [osteguna, urriak 29] arte ez nuen hitz egin. Errege jauregian ginen atzo, Madrilen, eta «kaixo, Iñaki. Zertan zabilta?», agurtu ninduen. Erantzun nion ea lana emango didan FAESen. «Aholku bat emango dizut, Iñaki: ez zaitez geldirik egon».

**Zapateroz, zer?**

**OLABARRIA:** Gurekin batera sartu zen Kongresuan, 1986an. Jarduera parlamentario txikia izan zuen, baina bat-batean jakin genuen Espainiako presidentetegi zela. Politikari ahula zen; agintari moduan gaitasun eskasa zeukan. Gaizki aritu zen arlo denetan, eta krisi garaian PSOE bertan jendea kontra agertu zitzaion. Hala ere, harekin lortu genituen eskumen batzuk.

**ANASAGASTI:** Arzalluzek esaten du bizkarrezurrik gabeko pertsonen antzekoa zela Zapatero politikoki.

**EAEko estatus politiko berririk izango al da?**

**ANASAGASTI:** Estatuarekiko alde-bikotasunean eta Nafarroako kontuan asko aurreratu daiteke.

**OLABARRIA:** Ikusi behar da zein dagoen gobernuan, eta nola. Eta ikusi behar da Eusko Legebiltzarreko autogobernu lantaldeak aurrera egingo duen. Datoren garai politiko berrien atarian, zentzuzko proposamenak egin behar dira; adibidez, autodeterminazioarena edo erabakitze eskubidearena, gero herritarrek erabaki dezaten zer nahi duten. Gure alderdiak emantzipazio politikoa nahi du. Sorrerako helburuak ditugu, betikoak, eta orain hori foru nazioan zehaztu dugu; hau da, nazio aitortza nahi dugu, eskubide historikoen gaurkotzean oinarrituta. Erabakitze eskubidea daukan subjektu politikoa garelako lortu behar da lehendabizi.

@ Elkartzetaren bertsioluzeta eta bideoa ikusgai BERRIAREN atarian: [www.berria.eus](http://www.berria.eus)